

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Foru Enpresak eta Foru Erakundeak****Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)**

2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion Sukaldari kategoriako hautaprobaren deialdia (Gobernu Batzordearen 2025eko abenduaren 3ko Erabakia, «Bizkaiko Aldizkari Ofiziala», 4 zk., 2026ko urtarrilaren 8koa). (Akatsak zuzentzea).

Akats materiala aurkitu da I. eranskinean: Merezimenduen Baremoa, 2026ko urtarrilaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 4. zenbakiko gaztelaniazko eta euskarazko argitalpenean, LH2ko Sukaldarien 4 plaza betetzeko hautaketa-prozesuari buruzkoan. Hori dela eta, zuzendu egiten da. Beraz,

— *Honakoa dioenean:*

«1. Edozein administrazio publikotan zerbitzu teknikoen ofizialaren kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,050 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere bederatzi (9) puntu».

— *Hau esan behar du:*

«1. Edozein administrazio publikotan LH2ko Sukaldariaren kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,050 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere bederatzi (9) puntu».

Bilbon, 2026ko urtarrilaren 27an. — GUFÉ-ren gerentea, David Latxaga Ugartemendia